



Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekin eta

gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguruua**

abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es

orrian

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

berria

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

2006ko azaroa
93. zkia. Doan


**Artxandako
txakurtegia**

**Eñaut Etxebarri eta
Kot arropa marka**

Pyrenaica aldizkaria

Loli Astoreka
**"Gu teatro gabeko
teatreroak gara"**





Solokoetxeko Amatasuna eta Kaxa

XIX. mendearen azken urteetan Solokoetxe aldean ospitalea egin eben, etxean erditzeko dirurik ez euken amentzat eta ama ezkonbakoentzat be. Amatasuna euki eban helburu, beraz. Eta haren ondoan, umezurtzentzat Kaxa ipini eben, hospizioa alegia. Kaxa esaten eutsoen, hormako zulo baten umeak lagatzeko kaxa bat egoalako. Holan, barrukoek ez eben ikusten seina nork itziten eban. Gure egunetara heldu dira eraikinok, parketxoaren alboan ederto atonduta.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



A
U
R
K
I
B
I
D
E
A

D
E
R
T
O
K
O
A
K

▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Artxandako txakurtegia	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta euskerea	8	▶ Mendia: San Adrian	25
▶ Pyrenaica	10	▶ Hezkuntza	26
▶ Kot arropa marka	12	▶ Durangoko azoka	28
▶ Elkarrizketa: Loli Astoreka	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Artxanda partien, hori Garbigunie dagoen lekutik apur bet beherao, jentiek gure ez deitzen txakurreri eta katueri etxetxo egin dotzie, han deukiez inork etzera eroan bittartien, ondo jagonda. Bertonekoak kontau daurie oingoa, baie nik lehenagotik jakin ixin dot kontue. Horreik txakurrek hain ondo jagonda dagoz ze, lantzien behin osteratxue eitten urteten be ixten dotzie, da holan haitariko batek astien behin-edo beheerantza eitten dau paseoa, gurera, Mahatserrirantza.

Da ez dakitt inoz pentsau dozuen gurien txakurre ixite zelango bentajie dan nungure ibilteko inok ezebe esan barik ta hanka biko ganaduek eitten deitzenak oserbateko.

Halan da ze, harek txakurrek kontateko jeneroa eduki deko, ta biok eitten dogulez berba inok entenditen ez daben modure, egun beten arka-len ondoan suertau, nik zozer esan, harek entzun, kontestau ta enee,... arkaleri entenditen dotzegu bata! Ta harezkeroan halango konbersaziño ta parraplaxuek botaten doguz.. ta gusture entzuten dodaz harenak.

Barbarako, lehengo astien kontau zosten Matiko partien topau daue-la andra bat aktrise dana, ona ta majie. Gusture lotuten da hareri bentanatik aittuten ensaiaten daben bittartien, jesarri be eitten da ikustearren, ta gure leukiela berak be halango jaubie eukin ixin baleu, ta ez Artxandara bota zeuen memeloan modukorik. Aktora ixiteko gogoa etorri jako ta iguel Artxandako etzien funtzioa preparauko daurie ta berak papela pentsaute dekola: Patan-ena.

Gero esan doste Txuridinaga partien Bertonen moduko rebistie eitten dauriela, baie harek denak dekoz mendidex ta edurre ta trokak ta jentie koloreko trajiekaz aldatz gora ta aldatz behera, ta hareik ikusite primo bategaz akordaten da, basoan pastore beharrean dekona, ta haren bizi-modue zelango gogorra dan, ta penatxue emoten dotzola primoa beragaz Artxandan trankilidadien bixi izin ixitiek.

Da gero Santuxure bajau zen baten umiek ikusi zeittuzela kalien erdidxen plastiko zati bet eskuen, letrak pintaute dekozena, ta ez zeuen ondo entendidu zer pasaten zan, baie pentsaten dabela hareik umiek etxetxo gure zeuriela, ta ez dauela entenditen zelan txakurreri eta katueri egin dotzien etzie ta umieri ez, ta preguntau zosten aber ni hanka bikoa ixinde esplikau ahal badotzat. Pentsau neuen txakurrek horiek gauzek ezin deittuzela entendidu ta kontetan segiduteko esan nontzan, ze ezpabere Santuxuko antenana eta Gaztetxeko neska-mutilena be esplikau biko nontzazan ta ez zan kontue hanka bikoon trapuzar guztidexk lau hankako bateri holan ta holan ataten ibiltie.

Total, azkena kontau zosten, neska-mutiko batzuk ikusi zeittuzela halango kamisetak ta jertseiek diferentiek jantzite ta fotoak eitten bategaz ta bestiegaz, da orduen akordau jakola txakurrek halangorik ez dauriela ifinten ta atzera pregunteu zotan aber berantzako be eukingo baleukie halango kamisetatu bet, ifinente zer sentiduten dan jakitearren gehien bat. Neurie emongo notzen, baie orduantxe momentuen hotza sartu zen ta esan notzan horreik gauzek txakurreri kalte eitten ei dotziela ta hogoto ibil-ten dala biluzik.

Akabateko, esan zosten kalien kartelak ta letreroak hainbeste ikusite leiduten be ikisi dabela ta aber zer rekomendaten dotzaten leiduteko. Bertone esango notzan, baie harek ikusten deitzen guztidexkaz Bertonen atara orduko harek danak ikusite, orduen okurridu jatan ideie. Telefonoa eskatu notzan da Bertonekoeri emon notzen. Eurek diñourie txakurren ta katuen etzieren erreportajie eitten joan direzela, baie bene-benetan txakur periodistieri kontratuei eitten joan direzela be entzun dot. Halan ixin bada, ederto baten, ze oin zeuek be harek ikusten deitzen guztidexk leiduteko suertea edukingo dozue, ez neuk bakarrik. :

Firmatue: Txakurrekaz berba eitten da

GURE BAZTERRAK

GORLIZ KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Uribarri auzoan, Artxandako magalean, Gorliz kalea dogu; egin-eginean bere, kale honen hasiera eta amaiera Plentzia kalean dagoz.

Beraren izena, argi dagoan legez, Gorlizko eleizate itsastarraren ome-nez jarrita dago. Eleizate hau Uribeko merindadean dago, eta Gernikako Batzar Nagusietan 52. jarlekua eta botoa eukazan.

Kontu berezia dogu, gaur egun ia inork gomutatzen ez dauana, hau da, 1299. urtean Haroko On Diego Lopezek Gaminiz auzoa kendu eutsan, modu horretara, uribildua sortzeko asmoagaz, eta Plazentzia izena emon eutsan, handik gaur egungo Plentzia izena. Hau Bizkaiko Jaun askok egindako kontua da, barbarako, Markina uribildua sortu eban On Tellok Xemeingo eta Etxebarriko lurretan.


Gorlizera barrero etorrita, esan geinke, gorlizarrak itsasoratu behar izan ebela eta bizimodua handik ataraten ebela. Horrezaz ganera, gomutatu behar dogu XIX. gizaldiaren erdia arte haren aretan gotorleku bat izan zala, Plentziako portua babesteko. Adibide legez, esan geinke eleizate honek garrantzi handia euki ebala Bizkaiko Jaurreriko itsasontzien zerrendaren ertzean. Gorlizko eleizateak hamabost itsasotzi izan zituan 1740. urtean.

GOTZON LOBERA REVILLA

ARTXANDA, TXAKUR ABANDONATUEN KONTSOLAGARRI

BERREHUN TXAKUR ETA KATU DAUDE

ANIMALIEN BABESERAKO ELKARTE BATEN ARDURAPEAN



Bizkaiko txakur eta katuen harrera eta adopzio zentroan Anuska, Rakel eta Esteban daude lanean, hainbeste laguntzailerekin batera. Animalia hauek hartu, zaindu, garbitu, jatekoa eman eta norbaitek hartuko dituela amestuz lanean dihardute. Abandonatutako txakur eta katuek zaintzeko elkarte da eta ez dugu inola ere Bilboko Udalaren txakurtegiarekin erratu behar. Artxandako Saratxebidean dago zentro hau, 1973an sortutako elkarte horren ardurapean. Zure inguruan halako animaliarik nahi izanez gero, bertara jotzea da aukerarik onena.

Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Rurriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarrondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Dabi Piedra,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Ane Zabala
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

Txakur eta katu abandonatuak hartzen dituzte. Elkarte horrek hainbat udalerrirekin du hitzarmena eta kuota bat ordaintzen dute zerbitzu hau izateko. Horrez gain, partikularren txakurrak ere jasotzen dituzte baina txakurra bertan utzi nahi duenak ordaindu behar du (150 euro). Animalien babeserako elkarte bat da (Capegabi) eta arduradunek argitu dutenez "jendea erratuta dago esaten duenean hau txakurtegi munizipala dela; gu Bizkaiko txakur eta katuen harrera eta adopzio zentroa gara".

Zentro honetan hiru pertsona daude lanean. Haietariko bat albaitaria da, Esteban, eta beste biak txakur eta katuez arduratzen dira. Anuska eta Rakel goizean goiz datoz Artxandako txoko honetara eta heldu bezain laster kaiolak garbitu eta animaliei jaten ematen diete, baita ur garbia jarri ere.

"Kaiola handi batzuk ditugu, ezin baititugu denak solte eduki. Ia berrehun txakur dago eta imajinatu denak solte egongo balira... hala ere batzuk solte ibiltzen dira egun osoan zehar. Zorionez elkarte honek bazkide asko ditu eta badago txakurrak ateratzen laguntzen duenik ere. Boluntario batzuk daude eta laguntza handia ematen digute txakurrez arduratuz", kontatu du Anuskak.

Arratsaldean kaiolak garbi daude, animaliak garbitu, orraztu eta mimoak ematen dizkiete txakur eta katuei. Zentro honetan oinarrizko gauzak ematen zaizkie txakurrei baina arduradunek aitortzen dutenez, txakur zein katu hauek gehien behar dutena maitasuna da.

KATUAK BE BAI

Instalazio hauetan ebakuntza-gela txiki bat dute interbentzio edo zauri txikiak osatzeko. Ebakuntza bat egin behar zaienean albaitariak erietxe batera daramatza han ez baitute leku handirik. Honez gain, gela batzuk dituzte eta bertan txakurkumeak daude; beste gela batean gaixotutako txakurrak egoten dira sendatu arte, besteengandik urrun mantenduta. Beste gela batean katuak daude. Katuak kaioletan egoten dira eta denetara hamabost bat katu daukate. Eraikin horren goiko aldean ere hogeitau bat urtez bertan lanean aritu den Jose Luis bizi da.

Txakurrak aldetik kentzeko era asko azaldu dizki-gu Anuskak. Batetik, kalean botata lagatzen dituzten txakurrak daude. Bestetik, badira zentroko atean lotuta uzten dituztenak edo txakurra aurkitu dutela esanez doazenak, gezurra izanda. Hori guztia 150 euro ez ordaintzearen.

Anuskak azaldu duenez, "ni hemen lanean nagoenetik konturatu naiz instituzioen aldetik asko esaten dela, animalien babeserako legeak daudela, baina benetan ez dute gauza handirik egiten. Azkenean elkarten artean egiten ditugu lan horiek. Hona heltzen den txakurren %95 txip barik dator. Legeak txipa eramatea agintzen du baina jendeak ez du betetzen. Hona txakur bat txiparekin helduz gero jabeekin kontaktuan jartzea errazagoa litzateke. Era honetan hemen ez lirateke ia berrehun txakur egongo".

Hemen noizbait txakur-



rrei injekzio letala eman behar zaie hiltzerian daudelako baina gero gorpuaren ardura Bilboko txakurtegiak hartzen du, "guk deitu, bila etortzen dira eta erraustu egiten dute". Zentro honetan dagoen txakurrik zaharrenak zortzi urte darama bertan. Gazteenak, oster, egun bat. Zaharrena Pitu deitzen da eta txakurkumeak maitasun osoz tratatzen dituela diosku Anuskak. Normala, etxeko aititea da Pitu. "Arraza askotako txakurrak ditugu hemen. Asko ehizan ibilitakoak dira. Sarritan, ehizarako balio ez dutenean abandonatu egiten dituzte. Duela gutxi irlandar setter kume bat utzi ziguten hanka apurtuta zuela, baina zorionez berriro adoptatu dute. Jendeak txakurrak abandonatzen ditu arazoak ematen dizkielako eta halako arazo bat albaitariarengana joanda konpontzen da. Hori baino ez".

Txakur ala katu bat adoptatzen denean anima-

lia parasitoez garbi, txertoak jarrita eta txiparekin ematen zaio hartzaileari. Hori da ordaintzen dena. Txakurra eramateagatik ez da ezer ordaindu behar. Guztira 80 euro ordaindu behar da txakur batengatik.

KUME BILA

Anuska apur bat kezkatuta dago jendea beti txakurkumeen bila datorrelako eta beharbada apur bat nagusiagoa den txakurra eramanda adaptazio arazo gutxiago edukiko litzateke. Baina jendea txakurkumeekin "obsesionatuta" dagoela esna digu. "Batzutan gertatu izan da txakurra eraman eta egun gutxitara berriro ekarri dutela kumeak etxeko gauzak txikitu egiten zituelako... beraz, gauza horiek gerta ez daitezkeen hobe da txakur helduago bat hartzea eta ez atzera eta aurrera ibiltzea, txakur-arentzako ez baita egokia", azaldu du. Jendeak jolas gisa hartzen dituzten kumeak baina kume horrek etxeko gauzak apurtu ahal ditu... "Beraz, ondo pentsatu behar da txakur bat hartzearena: hamabost bat urterako konpromisoa da txakur bat", gaineratu du.

Zentro horretan txakurrei babes emateko aukera ere badago. Bide horretatik, etxean txakurrik hartu ezin duenak ere badu aukera txakurrez arduratzeko. Txakur bat nahi baina etxean eduki ezin dutenentzako aukera polita da: gura duenean txakurra hartu eta kanpora atera ahal du.

AHOLKUAK

Artxandako zentroak ikastetxeetako heziketa berezia behar dutenekin ere kolaboratzen du bisitak eskainiz. Eta aholku sorta bat ere ematen digute: hasteko txakur bat hartu baino lehen bi aldiz pentsatzea eskatzen dute elkartetik, eta ez abandonatzea. Eta txakur bat hartu nahi duenak Artxandara hurbil dadila hemen asko baitaude "eta oso politak gainera", ez bakarrik kumeak txakur helduagoak ere oso leialak direla. Horrez gain, txakurrentzako zildaiak, pentsua edo eta edozein gauza soberan badute elkarte honetara ekarri hemen behar izango baitute. Nahi baduzue 944461008 telefonoan eta capegabi.org web gunean harremanetan jar zaitezke elkartearekin.

BEGOÑA ETA EUSKERA

Baserria begoñar nekazarien unitate produktiboa izan da mendez mende. Baserriak bertan bizi zirenen bizimodua ateratzeko beste, produkzioari eusteko beste eta zapaltzaileak asetzeko beste eman behar zuten. Zer osagai behar zituen unitate produktibo hark?

BASERRIAK ZER ZIREN

Begoñako lur eremu zabalak baserriz estalita egon izan dira XVI. mendetik XX. mendearen erdira arte. Salbetik hasita eta Arbolantxaganeraino eta Artxandatik Atxuriraino, mahatsorrien herria baserri herria izan zen hein handi baten XX. mendeko industrializazioak suntsitu zuen arte.

1785 urtean Manuela Gordia eta Narciso Basabe ezkontzeko kontratua egin zuten euren gurasoek. Leinu zaharra ziren Basabetarrak, jauntxo feudalen askazia. Narcisoren aita Valentin Tomasek lau maiorazko batzen zuen bere eskuetan, eta semeari lagatzeko berba eman zuen. Ametzaga maiorazko-ko ondasunen artean, Zurbarango dorretxea zegoen, "sita en dicha anteiglesia de Begoña con sus viñas, manzanas y tierras de pan sembrar, su orno y lagares notorios en ella y su varrio de Zurbaran, el zerrado que llaman Abaro con sus viñas, frutales, jarales y tierras de pan sembrar que pertenezan a dicha casa thorre de Zurbaran".



Zurbarango dorretxea

Horra hor unitate produktibo haren osagaiak zeintzuk ziren. Lehenengo eta behin baserria daukagu, Zurbarango dorretxe zena baserria ere bazen eta. XVI. mendetik aurrera leinu feudalen dorreek

euren eginkizun defentsiboa galdu zuten eta euren aurrean bide bi zabaldu ziren. Dorre sendoa arindu eta jauregi bihurtu edo baserri huts bilakatu. Kasu batzuetan biak batera gertatu ziren eta badi-rudi Zurbaran horietako bat izan zela. Javier Ybarraren ustetan, Zurbarango dorretxea XVIII. mendean zaharberritu zuten, jauregi neoklasiko baten itxura hartzeko.


Etxe barruan, pertsonentzako lekuak (eskaratza edo sutondo, karrajua eta logelak), aziendetzakoak (korta) eta produktuak gorde eta lehortzekoak (sabaia edo lastategia eta goiko kamara). Etxe ondoan, unitate produktibo haren osagai garrantzitsu bi. Alde batetik, labea, baserriko jendeek euren ogia egin zezaten. Bestetik, dolareak, bertan mahatsei eta sagarrei mami guztia ateratzeko. Garrantzi handikoak biak ala biak, baserriak sasoi haietan buruaski edo autosufizienteak izateko premia zeukaten eta. Horregatik etxe ondoko arloetan mahastiak, sagastiek eta soloak -gari eta arto soloak-

zeukaten. Bertatik atera behar ziren familiaren mantenturako bihiak eta edatekoak, baita ugazabari ordaindu beharreko errentak ere. Izan ere, Begoñako baserritar ia guztiak maizterrak ziren, jabeek errentan emandako baserria lantzen zuten.

Azkenik, etxetik asago, Abaroko zarratua -eremu itxia- zegoen, eta bertan mahasti, solo eta fruta arbola gehiago hazten ziren, baita basoak ere -beresiak-. Baserri gehien-gehienek eduki zituzten euren basoak, baserritar ekonomian ezinbestekoak zirelako.

ALDAKETAK

Basabetarrek beste etxe eta baserri batzuk ere bazeukaten Begoñan, barbarako, "la casa y casería de Alzaga con sus viñas, manzanas, frutales y tierras de pan sembrar que también radican en dicha anteiglesia de Begoña". Aurrekoaren antzekoa, beraz. Nekazari zibilizazio hura, ostera, ez zen aldagaitza. Kanbiatu egin zen, gorabehera ekonomikoek, demografikoek, kulturek eragin arteza zeukatelako. Horrela, sagastiek XVIII. mendean bertan desagertu ziren. Urte askotan Bilboko albo-herrietako baserri guztietako ezinbesteko osagaia izan ziren, sagar ardoak etxe-ko produktiorako zein salmentarako garrantzi handiko gaia izan zen eta. XVIII. mendean, ostera, estimazioa galdu zuen txakolina eta Errioxako



Uribarriko Etxezuri baserriko lur sailak XVIII mendean

ardoa erabat nagusituta. Horren ondorioz, sagasti asko goldatu eta garri edo arto soloak bilakatu zituzten. Gure egunetara heldu dira sagasti izeneko ortu edo arto arloak.

Beste aldaketa handi bat basoek sufritu zuten. Sagastiekin gertatu zen bezalaxe, XVIII. mendeko hazkunde demografikoak baso eta beresi asko desagerrarazi zuen, 'solobarri' bihurtzeko. Harizti edo artadi asko aizkoraz ebaki eta

haien lekuan garri eta arto arloak goldatu zituzten. 1704an beste jauntxo baten -Joseph Tristan Aboitiz- ezkontza kontratuan Begoñako beste baserri bat aitatu zuten: "la casa y casería de Uribarri goicoa, sita en la anteyglesia de Nuestra Señora Santa Maria de Vegoña con todos sus pertenecidos de viñas, tierras de pan sembrar y rro-bredal". Uribarri Goikoak mahastiak, soloak eta hariztia zeukzan.

Mendea aurrera egin ahala, ostera, hazkunde demografikoaren eraginez Bilboko plazari begira gero eta gehiago produzitza jarri ziren albo-herrietako baserritarrak. Ortuari leku handiago hartu zuten. 1786an Jose Antonio Olalde eta Maria Ana Ramona Arrieta Maskaruaren arteko kontratuan, baserri zerrenda luze baten artean,

Begoñako etxalde bi aitatu zituzten: Zabala baserria, bere solo eta mahastiekin, "que con todos ellos existe en el varrio de Zabalvide" eta "otra casa con su huerta llamada Artechu, en el varrio de Achuri de la misma anteyglesia". Atxuriko Artexuk ortu bat baino ez zeukan. Zabalak, ostera, solo eta mahastiak. Mahastiak, bai, sarritan esan dugulako Begoñako errepublikako jendeari mahatsorri esaten ziotela, diotela. Erderaz be bai. Mahatsorriez estalita zeudelako Begoñako baserriak eta bere arlo gehienak.



Halderapeño
euska! kultur gunea

www.halderapeño.com


txakur kalea, 1. 48005 bilbo • euskal herria tfnoa: 94 416 40 99



berton



El auto-omnibus de D. Ramón Irastua en dos pintorescos puntos del recorrido. (Foto: G. Gargallo)



En el glaciar de Bessos. (Foto: A. Sotelo)

PYRENAICA, EUSKAL MENDIZALETASUNAREN KRONIKA TXURDINAGAN IDAZTEN DA

Euskal Mendizale Federazioaren aldizkaria 1926an argitaratu zen lehenengoz

Historia luze eta oparoa dauka Pyrenaicak, Euskal Mendizale Federazioaren buletin gisa sortu eta urteen poderioz bere alorrean erreferentzia bihurtu den aldizkariak. 200 zenbaki baino gehiago kaleratu ditu 80 urteko bilakaeran eta, 1997ko uztailetik, agerkariaren historia Mahatserriarekin oso lotuta egon da, egoitza eta erredakzioa Txurdinagako Julian Gaiarre kaleko lokal batean dauzka eta.

Testua: Dabi Piedra
Argazkiak: Berton



D U G U D U G U D U G U D U G U D U G U

Pyrenaicaren historia 1926an hasi zen, garai hartan Federacion Vasco-Navarra de Alpinismo zenaren eskutik (gaur egun EMF da, Euskal Mendizale Federazioa). Jose Ramon Murga zen elkartearen presidentea eta hark proposatu zuen 'Pyrenaica' izena. Erreportaje, mendi kronika eta bestelako informazioaz gain, lehenengo zenbakitik hasi ziren argazkiak argitaratzen, orduko aurrerapen tekniko urriek ahalbidetzen zuten neurrian. Gaur egun, oraindik, mendi argazkilaritzak leku berezia du Pyrenaican eta argazki bikainak ikus daitezke.

Aldizkariaren historian, ordea, zenbait eten izan dira. Lehenengoa 1930etik 1935era bitartekoa izan zen,

urte haietan ez baitzen zenbaki berririk argitaratu. Gerra Zibila zela eta, bigarren etena gertatu zen eta 1951ra arte iraun zuen. 1967 eta 1972 urteen artean izan zen azkeneko geldiunea eta ordutik, hutsik egin gabe, urtean lau zenbaki kaleratzen ditu Pyrenaicak hiru hileko maiztasunarekin. 1980an, euskaldunak Everesteko gailurrera iristearrekin batera, aldizkariaren itxura goitik behera aldatzeari ekin zioten, tamaina handiagoan argitaratuz eta azalean kolorea sartuz (1988tik barrualdea ere koloretan da).

Ohiko aldizkariak gain, noizean behin liburuak ere argitaratu izan dituzte (orain euskal mendizaleatasunaren historiarekin dabilza) eta urtero argaz-

ki, ipuin eta artikulu lehiaketak antolatzen dituzte. Gaur egun, 25.000 aleko tiradarekin, mendiari buruzko agerkariaren artean Euskal Herriko ezagunena da eta bere hedapenari esker dirulaguntza publikorik gabe irauteko gai da, publizitatearen eta harpidedunen kuenten ekarpena nahikoa baita.

Pyrenaica, hala ere, ez da aldizkari komertzial arrunta, Federazioaren irabazi asmorik gabeko buletina baizik eta, horrez gain, lan-taldea amateurra da. Mendizale edo aditu bati gai baten inguruan enkarguzko lan bat eskatzen diotenean ere, horrek ez du dirurik jasotzen. Hori horrela izanagatik ere, Pyrenaicaren erredaktore eta noizbehinkako laguntzaileen artean euskal mendizaleatasunaren

ikur garrantzitsuak diren hainbat izen aurki ditzakegu, agerkariaren prestigioa oso handia da eta.

Zenbaki bakoitzaren edukia osatzeko, edozein mendizalek era boluntarioan idatzi eta bidalitako idazkiak ere onartzen dituzte. Hainbat zaletuk bidaltzen dituzten kolaborazio espontaneo piloak esker onez jasotzen dute, aldizkariaren helburuetako bat mendizaleen ulean-eneko interesak ezagutaraztea eta horiei lekua egitea baita, baina baztuetan ezin dituzte denak argitaratu, toki faltagatik edo artikuluak behar besteko zorroztasunik ez duelako.

Berezitasunak
Antonio Ortega 1981etik da Pyrenaicaren zuzendaria eta aldizkaria berezi egiten duten beste zenbait ezaugarri laburbildu dizkigu: Batetik, publizitatea ale bakoitzaren hasieran eta bukaeran baino ez dute jartzen, ez dezan erreportajeen osotasuna apurtu. Gainera, mendiko produktu edo zerbitzuekin zerikusia duten iragarkiak baino ez dituzte onartzen. Pyrenaicaren beste ezaugarri bat elebitasuna da, testuak iritsi diren hizkuntzan argitaratzen dituzte, euskaraz

edo gazteleraz. Antonio Ortegaren hitzetan "inoiz ez dugu hona heldu den idatzirik beste hizkuntza batera itzuli, beti originala jarri dugu". Hala ere, gaur egun, testuen zati txiki bat baino ez zaie euskaraz ailegatzten. Euskal Mendizale Federazioa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoa da soilik, Federazio Autonomikoen Legea egin zenetik Nafarroari beste elkarte bat dagokio eta. Baina Pyrenaica Hegoalde osoan banatzen da eta Ipar Euskal Herrira hedatzeko ahaleginak egiten ari dira, euskal herrialde guztietara iristeko nahiarekin.

Euzko Mendien Oroipenak

*Nire lagun maitasun osoa eta abar...
Nire lagun maitasun osoa eta abar...
Nire lagun maitasun osoa eta abar...*

¡Euzko mendiak, Euzko mendiak...! ¿Zergatik ikusten doguz zuen zehi ta basoak aih utzik...?
¿Zergatik zuen ikaitasuna apurtzen, dabe ekaitz gofotik eta aize tumbak bialitak...?
¿Zergatik ezda aitzen zugaizten dardara, eta efekatozen txir-txira bestiek...?

¡Aitor, Aitor, zure guda santuzko gisidra ote ziran betiko...?
Euzko mendien oroipenak itunak dira. Nun dituzte Euzko mendiak zuen Lartuak, Lekobide, eta beste aibeste seme kolmentu, abenda baten odola aih bikaitz eta bulartu erakuzi zutenak gizaideien zisr...?
Nun Padura, Amayur, Izaba eta beste toki azkotan aih maitetok gonde zizitaten seme maitiak...?
Itun Euzko mendiak ikusten dezutezako zuen abenda ilobi oretan, ikusten dezutezako zuen semien maitasun txiroa eta atgala.
Lenago zuen somiak ziran zuen basoetako aritz tantiaik bez indar- suak, eta aritz baten azpian egiten zuten zih abenda gordetzeko...
Gauf zuek mendi maitiak ikusten dezue of goitik zuen abenda eria,

Zure zain

Bilbo, Donostia eta Tolosan egoitzak izan eta gero, 1997ko uztailetik, Eusko Jaurlaritzak utzitako lokala da orain Pyrenaicaren bilgune eta erredakzioa, Txurdinaga auzoko Julian Gaiarre kalean kokatua. Beheko pisu txiki bat da, hainbat kirol federazioen egoitzak biltzen dituen eraikin berri baten barruan. Interneti esker, erredaktore taldea gero eta gutxiago joaten da bertara (urtean lau-bost bilerak baino ez dituzte egiten, gainontzekoa posta elektronikoz antolatzen baitute), baina aldizkariaren kudeaketaz arduratzen direnak asteleheneetik ostegunera egoten dira bertan. Horrez gain, eraikinean badago areto bat, federazio guztien eskura (Pyrenaica barne), hitzaldi, proiektzio eta gisakoak egiteko eta noizean behin ekitaldiak antolatu ohi dituzte bertan. Antonio Ortegaren hitzetan, Txurdinagara aldatu zirenetik, askoz erosoago egiten dute lan, lekua ondo prestatuta baitago eta, gainera, behingoz egoitza finkoa izateko aukera izan dute.

Txurdinagako egoitzan Pyrenaicaren zenbaki gehienak eta atera dituzten liburuak dauzkate gordeta, mendiari buruzko kontsultarako material oparoarekin batera. Antonio Ortegak nabarmendu duenez, hori guztia nahi duen mendizalearentzat irekita dago, mendiari buruz zerbait kontsultatu nahi duenak aukera dauka bertara joan eta begirada bat botatzeko. Jende gutxi daki hori, ordea, eta Ortegak animatu egin nahi ditu zaletu guztiak eta informazioa behar badute Pyrenaicaren egoitzara joan daitezela.

Antonio Ortega zuzendariak dioenez, Pyrenaicaren beste nahi bat gai guztiei eta mendiko kirol modalitate guztiei lekua egitea da, bakar batean espezializatu gabe. Horregatik, eta kolaboratzaile espontaneoek lekua egiten dietenez gero, aldizkari hau momentu bakoitzean modan zer dagoen ikusteko oso baliagarria da. Ortegaren hitzetan, egon izan dira garaiak alpeetako ibilaldiei buruzko artikulu asko argitaratu dituztenak, beste batzuetan eskaladari buruzkoak edo mendi bizikletaren gainean, azken finean, garai bakoitzean interes desberdinak gailendu dira, irakurleen interesen arabera.

Etorkizunari begira, bi proiektu garrantzitsu dauzkate esku artean: Bate-tik, euskara hutsezko bertsioa ateratzeko asmoa daukate baina, Antonio Ortegaren hitzetan, zaila egiten ari zaie jakitea zehazki zenbat jenderi interesatzen zaion Pyrenaica osoa euskaraz irakurtzea. Bestetik, aldizkariaren lehenengo 200 zenbakiak digitalizatu eta interneten jartzeko asmoa ere badaukate eta horri bilaketa sistema eraginkorra gehituz, artikulu zaharrak bilatu eta kontsultatzeko tresna paregabea izango litzateke.

MODAKO KAMISETEN SORTZAILEA EÑAUT ETXEBARRI GRAFIK SAREAKO DISEINATZAILEA DA

Eñaut Etxebarri mahatsorriaren diseinu batzuk oso ezagunak egin zaizkigu (Aste Nagusiko edota Aratusteko kartelen egilea izan da), baina azkenaldion 'Kot' kamiseten eta izerditakoen marka ezagunaren diseinu lanetan dihardu Grafik sarea Laudioko enpresan.

Testua: Ixaso Perez
Argazkiak: Berton



Orain arte Tram Grafik S.L. deitzen zen enpresak hiru lan esparruz osatuta dago: diseinu grafikoak, arropa (Kot markaren izenpean), eta seinaletika eta interiorismoko lanak. Hirurak atal independenteak dira baina elkarlanean aritzen dira.

Eñaut Etxebarri diseinu arloan dago, eta kamiseten diseinuan parte hartzen du. Diseinu lan horretan zehaztuko dituzte kamiseta edota izerditakoaren ezaugarri guztiak, koloreetatik hasita eta



kot

kamisetaren formaraino. Kot marka duela hamar urte sortu zuten, eta urtean bilduma pare bat ateratzen ditu, bat neguan eta bestea udari begira. Hasieratik euren asmoa zen bertako produktua ateratzea, bai diseinuari begira (Euskal Herriko gauza esanguratsuak erabiliz: paisaiak, mendiak, landareak, hiriko berezitasunak...), bai ekoizpena eta hornikuntza ahal den heinean hemen egitea ere.

Hiru bilduma dauzkate: Lurra, beti-betikoak, ezagunena agian. Mendiak dira bere elementuak. 'Inland'en zuhaitzak agertzen dituzte. Honen koloreak 'zikinak' izaten dira, naturan aurki ditzakegunen antzekoak. Bigarrena '7=1' da eta jende gazteari zuzenduta dago. Kolore biziagoak izaten ditu. Azkenik, Hiria, diseinu libreagoan baina kolore 'zikinak' erabiliz.

7=1 bildumarekin bilatu dute aurreko horrekin apurtzea nolabait eta jendeak ez lotzea Kot marka mendi eta paisaien irudiekin bakarrik. Horrela ere betiko dendetan ez beste denda batzuetara zabaltzea dute xede. Hau da, mendiko edota kirol dendetan ez ezik beste edozein arropa dendatan saldu ahal izatea euren kamisetak eta izerditakoak.

ZAILTASUNAK

Grafik sarean egiten dutena da kamiseta hasiera-hasieratik definitu eta diseinatu, bai oihala (Kot izena kotoitik dator), bai koloreak, bai formak, irudiak, logoak... dena. Merkatuan kamiseta mota asko dago, bakoitzak bere esparrua daukalarik. Bilatu behar dena da zein den bakoitzaren esparrua. Kot marka, duela hamar urte proba gisa


sortu zuten. Mendien gaiarekin, esaterako, bazeuden urrutiko mendien irudiak zeuzkaten kamisetak, baina ez Ganekogorta edota Gorbeaiaren irudiekin. Eta kanpoko norbait etorri beharrean horrelakorik proposatzera, Tramekoek eurek sortu zuten. Eta horrela, aldi berean bezeroa eta egileak izanik, eurek erabakitzen zuten zer eta zelan egin, noiz, ...

Hasieran probatxoak zena indarra hartuz joan zen, akatsak eta arazoak gaintuz. Azkenean, markak izena eta izana eskuratzean enpresaren beste ildo bat izatera igaro zen. Bide autonomoa izanik, beste enpresa gisa hartu behar izan zuten, beren-beregi horretarako lan egingo zuten pertsonak bilatuz: komertzialak batez ere. Bestela ez zuen aurrera egingo.

Izan ere, hasiera horietan langileen denbora librean egiten zituzten Koten diseinuak, eta horrela ezin zuten ganoraz eraman. Orduan sortu zen enpresa autonomoa. Helburua zen Euskal Herrian saltzea, beti kotoiaren inguruan, eta Euskal Herriko produktua izatea hasieratik amaierara: bai patroien diseinuaren aldetik, bai kolore aukeraketaren aldetik, baina baita gero produk-

zioaren inguruan, hemen egitea, hemen serigrafiatzea...


Eta hori dena oso zaila ei da, produkzioarena alegia. Berton ez baitago horretara dedikatzen den jendea, edota oso gutxi dago. Jende gehienak



KOT, IRLANDAN ERE

Datorren urtean, eta Irlandako enpresa baten eskariari erantzunez, Irlandako paisai eta leku esanguratsuen irudiak eramango dituzten Koten kamisetak salduko dira irlan. Eskualdeka irudiak aukeratu (irlandar horiek egin dute lan hori) eta gero datorren sasoirako kamisetetan ezarriko dituzte. Bertakoek zerbait ezberdina egitekotan zebiltzan, Grafikekoen lana gustukoa izan eta eurekin adostu duten lan hitzarmena denbora baterako, Guinness eta bestelako topikoetatik ihes egin nahian. Topikoetatik ihes baina turismoari begira egingo dute. Ez da hori, ordea, Kot markarekin gertatzen dena, euskalduntzat pentsatua dago eta.

Euskal Herriak duen neurria dauka eta kanpora begira ipini behar dira epe luzera begira. Irlandakoa bezalako saiakerarik egin dute aurretik, Galizarekin. Baina euren asmoak epe luzera haratago doaz eta web orrian (www.grafikksarea.com) Euskal Herria, Galiza, Pirinioak, Irlanda eta bestelakoak agertzea dira. Zenbat eta gehiago saldu, produkzioa handitzean bertan produzitzeko ahalmenaren aukerak areagotuko lirarteke, Kot marka bertako produktu izatea bere osotasunean, hasieratik amaieraraino.



ERTON DUGU

ERTON DUGU

A gapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak

Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko herriko taberna Iturriaga 96.

Gosari bereziak:
Kalea + pintxoa 1,50 €.

Euskal Herria AURRERA!!

Garaizar

JESUS GARINDEZ, N.º 10
Telf: 94 473 312 255 GARAIZAR - BILBO



tsitako forrozko partxeak ipini zituzten, eta arrakasta izan zuen. Edota mendiko kamiseten itxura kotoira eraman izana.

Baina ildo orokorra bestelakoa da. Eñauten lankide batek zioen bezala "gurea ez da agian mendira eramaten duzun kamiseta bat baina bai da menditik jaisten zarenean janzen duzuna", Ez da kirola egiteko arropa, mendia,

ingurugiroa gustuko duenari begira egindakoa baizik.

Kamisetak merkatura iristeko bidean pausuri zailena produkzioa dela aitortzen du Eñautek, bere teilatura harriak botatzen. Hornitzaile ona, konfiantzazkoa, norberaren enpresaren neurrikoa aurkitzea, hori da lanik zailena. Hamar urtetako esperientziak zer edo zertarako balio izan die, baina merkaturak aldakorra denez gero, nor daki bihar erabaki egokia hartu duten! Denborak, epeak erabakitzen dute nor den egokiena. Epeak betetzen dituen izaten da aukerarik onena, hornitzailearen menpe egoten direlako komertzialek egindako lanen emaitzak ikusteko. Diseinu bikaina, komertzialak bikainak izan arren, hornitzaileak epeetan kale eginez gero, ez da produktua saltzen lortuko, konfiantza faltagatik batez ere. Dendariak ez badu garaiz saltzen dirua galtzen duela.

MODELO MAHATSORRIAK

2006ko bildumarako hasi ziren publizitatea lantzen, bai web orrian bai aldizkari batzuetan iragarkiak ezarri ahal izateko edota dendaz denda darabilten katalogoak osatzeko. Hortaz, modeloen beharra: argazkietarako jendea behar zuten, eta enpresa txikia den legez, gertukoengana jo zuten, kasu honetan Eñaut Etxebarrik berak, eta proposamena bere arreba Orzuriri eta honen lagunartekoei egin zien. Jakina, edo nork ez du balio kameraren aurrean ipintzeko. Ez da polita izan behar derrigorrez baina bai fotogenikoa, naturaltasunez agertzea, hain zuzen. Baina kasu honetan horrelako arazorik ez da egon, argazkietan ondo islatzen denez. Orzuri, Zalao, Patri, Aitziber,... izan dira edota izaten dira modelo lanetan. Lagunak, lagunaren laguna.../ Publizitatea Euskal Herria, Entzun eta beste aldizkariaren batean txertatu izan dute orain arte, baina lanez gainezka egon direlako edo, ez diote beharko lukeen arreta eskaini. Hemendik aurrera bai, serioago helduko diotela horri esan digu Eñaut Etxebarrik.

BILDUMA BEREZIAK

Kot markak duen estetikaren barruan bilduma berezia egiten dute Nafarroa Oinez dagokion herrian. Bertan argazki lehiaketa antolatzen da herriko ezaugarri nagusienak erretratatzeko asmoz, eta irabazleen argazkiekin kamiseten diseinua egiten da. Eta gero, Nafarroa Oinez denda ofizialean saltzen dute.

Mendiko zenbait martxetarako ere egin izan dituzte (Amurrión, Laudión), eta kasu hauetan izaten da parte hartzailei oparitzeko.

Aurten Diman bigarren urtez segituan ospatu den Dima Rock Master Nazioarteko Eskalada Txapelketa eta Euskal Herriko Eskalada Txapelketen babesle ofiziala izan da Kot. Partehartzaileen kamisetak, epaileen ere Kotenak izan dira, eta horrez gain, sarrera ordaindu zuten guztientzako Koten kamiseta bat opari jaso zuten. Hori izan zen Grafikekoen laguntza, eta hauen helburuen barruan sartzen da honelako Euskal Herriko Txapelketa baten babeslea izatea, adibidez.

Mendi edota kirolarekin zerikusirik ez daukan Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketarako egin izan dute bilduma berezirik, eta hauek txapelketaren saio ezberdinetan saldu izan dituzte.

LOLI ASTOREKA

"Gu teatro gabeko teatreerok gara"



Hogeita bost urte baino gehiago darama oholtza gainean Loli Astorekak. Kasualitatez hasi bazen ere, maite duen lanbidea da. Bernagoitiakoa da, izatez, eta urte mordo da Uribarrin (Matikon) bizi dela. Comicos de la legua antzerki taldean hasi zuen bere ibilbidea. Geroago Karraka antzerki taldea sortu zuen beste aktore batzuekin batera eta harrezkero hamaika pertsonaia gorpuztu duen aktorea da Loli.

Testua: Ane Zabala
Argazkiak: Iñigo Arzouza

kanpora jotzen du, enpresa hobeak eta merkeagoak daudelako. Eta orain arte Grafik sarekoentzat zaila izan da berton ekoizpen osoa egitea. Beraz, oraindik betetzeko duten helburua lit-zateke hauxe.

DESLOKALIZAZIOAK

Koten kamisetak kalitate onekoak dira, eta horiek hemendik hurbil aurkitzea ez da erreza. Marka handiek behartu dutenez produkzioa beste herrialde batzuetara eramaten, enpresa txikiak ere behartzen dituzte kanpora jotzen: Portugalera, Turkiara... Eta gainera, han eskaintza oso zabala kalitate-prezio guztiekin, eta hemendik hurbil bilatu nahi bada aukera murriztagoa. Nafarroan badaude batzuk, Asturiasen be bai... baina askoz murriztagoak dira aukerak. Gainera, Kot markan kamiseta beraren forma eta koloreen banaketa euren erabakitzen dute, eta jantzigintza enpresa guztiak ez daude horretarako prestatuta.

Eñaut Etxebarrik argi utzi du Kot markarekin "ez dugula moda egin nahi". Aitzitik, beti atzetik doaz, nahita, ez dute bilatzen aurretik joatea. Esperimenturen bat edo beste egin dute ordea. Iaz izerditako eta forroaren arteko hibrido bat asmatu zuten. Izerditakoa kotoizkoa eta bertan itsa-

Nola hasi zinen antzerki munduan, norekin?

Duela urte asko. Comicos de la legua Bilboko taldeak, udan kaleko antzezlan bat preparatu nahi zuen eta euskaraz egin nahi zuten. Jende bila zebiltzan. Kasualitatez euren antzezlan ikustera joan nintzen 'Tri-pontzi eta Tiburtzi' Matienako jaietan. Antzezlan bukatutakoan udan eurekin lan egitea proposatu zidaten. Ni orduan ikastaroak egiten nengibilen, COU bukatzen nengibilen eta frantsesa ikastera joan behar nuen uda hartan. Plan hori bertan bera utzi eta Comicos de la legua taldearekin lan egitea erabaki nuen. Horrela hasi nintzen eta gaur egun arte. Hiru hila-beterako izan behar zuena urte asko-tako ofizioa bihurtu da.

Comicos de la legua, Karraka... nola gogoratzen dituzu garai haiek gaur egungo ikuspegitik?

Comicos de la legua taldean bost urte egin nituen eta 1980an banandu egin ginen. Comicos taldetik Maskarada eta Karraka taldeak sortu ziren. Ni Karrakan geratu nintzen. Orduan ni hasten nengoen eta dena nobedadea zen. Garai haiek ilusioz beteak gogoratzen ditut. Denbora guztian ikasten. Orain pentsatzen dudanean oroimen onak ditut. Txarrak ahazten ei ditugu.

Garai haiek trantsizio garaiak ziren, Aktoreek konpromiso politiko eta soziala zeukaten?

Argi dago garai ezberdinak zirela. Nik garai haietako ondorio bat sufritzen ari naiz. Begian katarata bat daukat. Adierazpen askatasunaren aldeko manifestazio baten poliziek karga baten egindakoa. Madrilera joan ginen manifestazio baten parte hartzera. El Joglars taldeko kideak atxilotu zituzten 'La Torna' antzezlan debekatu zutenean. Gu ministroarekin berba egitera eta martxa bat sortzera joan ginen. Taldeko batzuek Pio Cabanillasekin hitz egiten zuten bitartean, besteak behean furgonetaren zain geunden. Bat-batean grisak agertu ziren eta ni harrapatu ninduten, begian kolpe bat jo eta astebete La Paz ospitalean egon nintzen. Etxean bueltan nengoela multa bat etorri zitzaidan 500.000 pezetakoa, debe-

katutako manifestazioan parte hartu izanagatik. Hamazortzi urte baino ez nituen eta oraindik adin txikikoa nintzen. Hala eta guztiz be, hamabostean behin Durangoko polizia-etxera joan behar izaten nintzen sinatzera. Garai haiek asko markatu zituzten aktoreak. Demokraziaren lehenengo urteak ziren. Lerro artean irakurri behar zen. Urte haietan gertatutakoak kalte handia egin dio profesioari, antzerkiari orokorrean. Egia da aktoreak konprometituagoak zirela. Baina, inoiz ez ginen joaten barneko arazoetara, beti azaletik genbiltzan.

Comicos de la legua eta Karrakan ibili ostean, konpainiak eta taldeak nola sortu diren ikusi izan duzu? Zuk aktore independente moduan jarraitu duzu zure ibilbidea...

Bai talde asko sortu dira urteotan eta gaur egun galdu egiten naiz. Zorionez talde asko sortu dira. Ni momentu batean erabaki nuen ez nuela enpresa gehiago sortuko. Talde bat sortzeak dakarren lan estrarekin nekatuta nengoen. Egoera horietan beti egin izan dudalako talderako lana, nire buruan pentsatu gabe. Momentu baten aurkitu nintzen urte mordoa neramala lanean eta soldatarik ez neukala, ezta hileko sostengu bat. Orduan erabaki nuen hori uztea. Numero kontuak eta enpresa kontuak ez dira niretzat. Erabaki horrek beste talde askorekin lan egiteko aukera eman dit. Hori oso aberasgarria izan da, jende asko ezagutu ahal izan dudalako. Eta aktore lanean beharrezkoa da jende ezberdinarekin lan egitea. Haize freskoa beti dator ondo.

Hasi zinenetik azpiegiturretan aldaketak ikusi dituzu? Nola dagoz gaur egun Euskal Herrian antzokiak?

Asko ez da aldatu, egia esan. Izenak eta aldatu dira baina denak antzera jarraitzen du. Bai, antzoki gehiago daude baina egia esan ez dakit noizentzat. Badira momentu honetan euskal antzerkian hainbat antzezlan baina ez dago emanaldi asko egiteko aukera handirik. Antzezlanak prestatu eta hor geratzen gara, emanaldiak egin ezinik. Euskal Herriko aktoreak teatro gabeko teatroak gara. Ni hasi nintzenean Comicos eta Karrakarekin gaur egun baino emanaldi askoz gehiago egiten genituen.

Ibilbide luze honetan toki eta leku xeletan antzeztu behar izan duzu?

Mota guztietako lekutan antzeztu

izan ditugu gure obrak: eliza, frontoi, antzoki, plaza eta behin korta baten ere egin genuen. Azkenean antzerkia egiten uzten diguten lekuetan egin behar dugu, bestela etxean geratzen zara.

Urte asko aktore lanetan, zein paper egingo zenuen gustura? Edo ze antzezlan?

Oraindik paper asko geratzen zaizkit egiteko. Aurkezten dizkidaten paper guztiak ilusioz hartzen ditut. Orain antzezlan bat prestatzen nabil eta landu behar dudan pertsonaiak buruko min asko ematen dit. Ama baten papera egin behar dut eta hor nabil buru

belarri sartuta. Oraindik ez daukat nireganatuta. Hori pertsonai guztiekin gertatzen zait, lantzen hasten nintzenean hasiberria bezala ibiltzen naiz. Aukeratu beharko banu ez dakit zein hartuko nukeen, ez daukat paper berezirik eta. Orain amak eta amamak antzeztu nabil. Badakizu, edadearen kontuak dira-eta. Bai telebistan bai zinemaren paper horiek antzezteko deitzen didate. Denak dira ongi etorriak.

Emakumea zaren heinean zelan ikusten duzu emakumearen egoera antzerki munduan?

Beste lanbide batzutan gertatzen den bezala antzerkian ere emakumearen presentzia gutxi ikusten dut. Orain egiten ari naizen 'Ongi ibili' antzezlanean guretzat egindako obra bat da eta hiru emakume gaude oholtza gainean. Baina edozein antzezlanetan edo telebistako edozein telesailetan gizonen gehiago dago emakumezkoak baino, ikusiko dituzu. Sortzeko prozesuan emakumeak falta dira, hau da, idazten eta antzezlanak zuzentzen. Egon badago, baina gutxi.

Bernagoitiakoa zara, noiz etorri zinen Uribarrira bizitzera?

Lehenengo Bolueta auzoan egon nintzen zortzi urtez bizitzen, eta gero



Uribarriko goialdera joan nintzen eta handik Moraza plazara. Bilbo nirekin oso ondo portatu izan da. Bilbok egun eta momentu bikainak eman dizkit. Aste Nagusiko pregoilaria izan nintzen, Aratusteetako Zaranbolas ere izan naiz,... hainbat gauza eta sentimendu bizi izan ditut Bilbon. Ni bilbotarra sentitzen naiz. Bizkaitarra naiz eta bizitzeko Matiko auzoa primerakoa da.



Euskarari dagokionez, bizkaitartasuna agerian utzi izan duzu?

Askotan hori zaila izan da. Testuak batueraz heltzen zaizkit eta beti neure euskarara hurbiltzen saiatzen naiz. Testuak zeureganatzen dituzue-nean beti irteten zaizu zeure euskara. Gogoratzen naiz, hasierako urteetan Donostiara joaten nintzenean lanera, askotan esaten zidatela: 'zer? Zer esan duzu?' Espelikazioak ematen aspertu egiten nintzen. Guk gipuzkera arinago harrapatzen genuen baina eurei Bizkaiko berba asko kostatu egiten zitzairen. Ahalegin handirik ez zuten egiten gu ulertzeko. Gutxinkaka-gutxinkaka normalizatzen joan dira.

Telebistan urte askotan ibili izan zara? Goenkalen aritu zinen eta oraindik ere jarraitzen du...

Aste honetan 'El comisario' telesailan atera naiz. Udan grabatutako pare bat kapitulutan. Goenkalen ibilitako bost urteak asko gogoratzen ditut. Oraindik ere jarraitzen duen telesaila da eta jarraitu dezala, lana da-eta aktore askorentzat. Hala ere antzerkiak beste magia bat dauka telebista-

rekin konparatuz: ikusleago zuzenean sentitzea. Ikusleago zuzenean sentitzea da adrenalina benetan pizten duena.

Momentu honetan zertan zabil-tza?

Alde batetik Pok ekoiztetxearekin 'Ongi ibili' antzezlanarekin gabiltz, pasa den urtean entrenatutakoa. Bestalde Glu-Glu ekoiztetxearekin 'Ama quiero ser lehendakari' lana prestatzen ari naiz. Eta bakarrizketak be egiten ditut. Lan asko direla ematen du, baina zoritxarrez ez dagoz emanaldi asko.

Bi antzezlan horiek Aizpea Goenagak idatzi eta zuzendu ditu. Askotan lan egin izan duzu berarekin?

Niretzat luxu bat da Aizpearekin lan egitea. Aspaldi ezagutzen dugu elkar eta behin baino gehiagotan egin izan dut lan berarekin. Pasa den udan adibidez berak zuzendutako 'Zeru horiek' filmean parte hartu nuen. Gainera aurten pelikulak sari bat jaso du. Oso aberasgarria da Aizpearekin lan egitea.

Aktorea ez bazina, non ikusten duzu zure burua?

Hori ez dakit. Geldirik ez nintzen geratuko, nire nor-tasuna ez da geldi egoteko modukoa. Lanbide hau asko gustatzen zait. Urteak pasatu ahala, gero eta gehiago. Askotan lan hau droga bat dela pentsatzen dut. Ikusleagoak harrapatzen zaitu eta lan egiteko beharrezana izaten duzu. Oholtza gainean askotan izaten dituzun minak desagertu egiten dira eta behin emanaldia bukatuta

primeran zaude. Mundu honek zerbait dauka hitzekin azaltzeko zaila dena

Bukatzeko, antzerkia krisian dagoela uste duzu?

Beti dago krisian. Beti esaten da krisian dagoela Bizi egin behar da, lana datorrenean topera ibili. Lanbide honetan edo dena daukazu batera edo ezer ez. Hori ondo eramaten ikasi egin dut. Jubilatzen naizenean, inoiz jubilatzen banaiz, krisian jarraituko du lanbideak. Aisialdirako eskaintza handiak daude eta jendearengana heltzeko ahalegin asko egin behar da, gizarteak ere mugimendu asko ditu, asko aldatu da jendearen artean erlazionatzeko erak eta horrek eragin zuzena du antzerkira hurbiltzen den jendearengan. Ni poztu egiten naiz emanaldi bat egiten duzunean eta aulkiak beteta ikusten dituzunean. Antzerkia euskaraz egiten dugu eta martitzen buruzuri baten antzokia erdi beteta ikusteak benetan alaitzen nau. Antzokiak jendez gainezka ikustea maite dut baina gutxitan gertatzen da hori.

Zortzi galdera labur

Filma: 'El viaje a ninguna parte'
Fernando Fernán Gómez.
Liburua: 'Seda' Alessandro Baricco
Kantua: 'Hegoak ebaki banizkio'.
Janaria: Piperrak.
Mendia ala hondartza?: Mendia.

Antzezlan: 'Antaviana'
Dagoll-Dagom antzerki taldearena.
Lekua: : Artxanda, Garai.
Aktore: Nirekin lan egiten duten euskal aktoreak denak dira primerakoak, nire inguruko aktore guztiak.

Perretxiko sasoi betean gaude. Lasai jaten dituzu?

JUDITH (LEKEITIO)
BAI. NORMALEAN EDONOGAZ FIDATZEN NAZ. NIRE AUZOKOAK EKARRITAKOAK JATEN DODAZ, TABERNETAKOAK, JATETXEETAN,... EDONON. BAINA NAHIAGO DOT EZAGUN BATEK EKARTEN BADAU.



DORLETA (ZEANURI)
NIK LASAI JATEN DODAZ ZE AITA JOATEN DA BASORA ETA AITAK EKARTEN DAUZ. AITAGAZ FIDATZEN NAZ.



MAIDER (SAN IGNAZIO)
EZ. TXARTO EGOSI EZKERO, KALTE HANDIAK SUFRITU AHAL DOZUZ. BAINA BESTE INORK PRESTATZEN BADITU, LASAI-LASAI JATEN DODAZ.

ALAIN (PLENTZIA)
BATZUEKIN FIDATZEN NAIZ. BAINA EZ BADA-KIT, EZER ERE EZ. SEGU-RU EGON BEHAR NAIZ.



MARILUZ (TXURDINAGA)
EZ. ZIZEKIN EZ DAUKAT LASAITASUNIK. BELDUR NAIZ, EZ NAIZ AUSARTZEN. PERRETXIKOAK BAI, BAINA ZIZARIK EZ. ADITU BATEK EKARRITA ERE, EZIN DUT.



IÑIGO (BEGOÑA)
BAI. BEHIN JAKINDA ZEIN JAN AHAL DAN ETA ZEIN EZ, EZ DAGO PROBLEMARIK. NIK GITXI GORABEHARA BADAKIT.

PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOI!

Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak

Garraioak
Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Sorgintxuloren aurkako azken epaiketaren fiskalak kartzela zigorrak eskatu ditu lau gazterentzat

Auzipetuei babesa eman diete manifestazio eta protesta ekitaldietan

Santutxuko Sorgintxulo gaztetxearen kontrako neurriek eragindako azken juizioa egin dute azaroan lau gazteren kontra. Batzokiaren aurrean egindako eserialdi baten atentatua egin izana leporatuta ia zortzina urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak. Auzipetuei

Azaroaren 16an, manifestazioa burutu zuten Santutxun Sorgintxuloren hustuketaren ondorioz izandako epaiketa guztiei aurre egiteko. Berezik, azken epaiketari erantzuteko. Izan ere, azaroaren 22an auzoko 4 gaztek 31 urteko

handia izan dezake, izan ere, ertzainen adierazpen hori aintzat hartuta fiskalak atentatu delitua egotzi zien.

UDALETXEAN ZITA

Aurreko epaiketetan ere egin izan

sententziaren zain daude gazteak. Eskarmentu moduan zigorraren bat jasotzearen beldur dira.

KONPONDU BARIK

Sorgintxulo indarrez hustu zutenetik ia bi urte beteko direla, Gazte Asanbladako kideek gazteak autogestio-natutako lokal faltaren arazoa oraindik hor dirauela salatu dute. Ia sei urtetan zehar auzo-arentzat eraiki eta eskainitako guztia egun batetik bestera kendu zieten eta oraindik ez dute alternatibarik jaso. Horrela, hilaren 11an lokal berri bat okupatzen saiatu ziren gazteak. Goizeko hamarrak aldera hasi zen jenda



den bezala, kontzentrazioa deitua zuten gazteek eguerdiko hamabieta-rako Udaletxearen aurrean. Bertan, epaitutako gazteei elkartzuna adierazi eta udalaren jarrera salatu nahi izan zuten. Izan ere, Udala jotzen dute okupazio mugimendua kriminalizatzeko Bilbon aurrera daramaten eraso ororen erantzule. Gazte-txearen harira, egondako auzi guztiak, eraso hauetan oinarritutako muntaia polizialak baino ez direla diote.

Orain arteko epaiketa guztiak bertan behera geratu edo gazteak libre geratu dira. Azaroaren 22koa izan zen azken epaiketa, eta orain

deia Haro plaza inguruan biltzen, eta bi urte hutsik zeraman lokalera sartzen. Udaltzaingoa eta Ertzaintza berehala azaldu ziren, eta jabearen salaketarik gabe zer egiterik ez zutela, baina hura lortutakoan bueltatuko zirela esan zieten gazteei.

Handik minutu batzuetara ordea, ezusteko galanta izan zuten gazteek. Lokala ikusten eta atontzen hasteko prest zeudela, jabeak azaldu zitzaizkien beste ate batetik oso modu txarrean. Hor amaitu zen egun horretako abentura, ez betiko ordea. Auzoaren beharrak hor dirauen bitartean, alternatibak bilatzeko prest azaldu baitziren gazteak.

URIBARRIN PROTESTAK HASI DIRA ESKOLETAKO PLAZA DELA MEDIO.-

Azaroaren 24ko arratsaldean eskoletako plazan obretarako makinariak gain, hesiak eta porlanezko 'lorategi-jesarlekuak' agertu ziren. Hainbat bizilagun eta elkarteek kezka da jesarleku horiek berez esparru txikia den plazari lekua kenduko ote dioten Azaroaren 28an auzo batzarra egin zuten eta kartelak ipini dituzte obrako hesietan.



GAZTE IJITOEEN LOKAL BERRIA.-

Azaroaren 16an, Euskal Ijito herriaren egunean, Txurdinagako Kale Dor Kayiko elkar-teak KDK gazteen lokala ireki zuen. Aurkezpenaren ondoren 50en bat lagunak aurrean flamenko kantaldia burutu zuten. Lokal honetan, alde batetik, euskal sozietatean berdintasunerako espazio bat errebindikatu nahi dute baztertuta sentitzeari uzteko. Bestetik hezkuntza ere jorratu nahi dute euren formazioa hobetuz eta horrela etorkizuneko ijito herriaren eraikuntzan parte hartu ahal izateko.



LEZAMAKO TRENBIDE ZAHARRETIK ARTXANDARAKO BIDEA ITXI DUTE.-

Uribarriko Lezamako Trenbide Zaharra kaletik Artxandara doan bidea itxi du Bilbo-ko Udalak, bertatik zebilen trafiko ugaria bertan behera utzita. Horretarako, bide erdian, burdinazko pieza bi ipini dituzte. Hala ere, argazkian ikusten den legez, badi-ra horiek ere saihesten dituztenak.

URTARRILA

ROMA	88 Euro
PARIS	80 Euro
EGIPTO	550 Euro
TENERIFE	380 Euro
LANZAROTE	390 Euro


mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak

GRUPO STAR www.ibiltari.com Tel. 94 473 00 45 Fax 94 412 07 28 48004 SANTUTXU - BILBO

KAIKU
Munduko Herrien Etxea
Arzuaga 1 Santutxu


ADI
ASESORIA FISCAL CONTABLE LABORAL ARDICO MERCANTIL
Oleta, s/n - 48970 BASAURI Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza



BOLUETAKO ETXE BERRIETAN ALDAKETAK.-

Julia Madrazo (EB) Bilboko Udaleko Hirigintza saileko zinegotziak iragarri duenez, aldaketak egin behar izan dituzte Boluetako Santa Anako etxe poligonoaren proiektuan, bertan faila geologikoa detektatu dutelako. Horren ondorioz, 1.100 etxebizitzaren banaketa aldatu behar izan dute. Bestalde, sorgailu elektrikoa jarriko dute poligonoari elektrizitatea eta beroa emateko.



OINEZKOENTZAKO ZALDAINA KARMELO KALEAN.-

Bilboko Udalak oinezkoentzako zaldaina paratu du Karmelo kalean. Bertan lur azpiko aparkalekua egiten ari dira eta laster hirugarren fasea hasiko dute. Horren ondorioz, Iturriaga kaleraino zabalduko dute hondeaketa eremua.

BILBOKO IBILBIDEAK.-

Bilboko Udalak barruti guztietan barrena egiteko moduko ibilbideak seinaleztatu ditu eta baita esku orri batzuetan argitaratu ere. Begoñako errepublika zaharrean, Uribarriko barrutiko ibilbidea Udaletxetik Etxebarriko parkera doa Pikotamenditik igarota. Txurdinaga-Otxarkoagari dagokionez, Europa parketik hasi eta Zabalbideraino Iturritxualde mendian zehar. Azkenik, Begoñako barrutiko ibilbidea Larreagaburun hasi eta -Egiletaraino doa.

Explora / Ezagutu

Distrito Barruti **2** URIBARRI PIKOTAMENDI

Bilbao

B Bilbao garbi

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos Instalador
Presupuestos Autorizado

J. Ruiz

*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones
*Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo
*Porteros automáticos y videopuertas
*Aire acondicionado

Juan de Gisaola nº9 Loma 48004 Bilbao Fax: 944111652-Tf: 656703855

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria irrati

www.bilbohiria.com

Santutxun mobilizazioak hasi dituzte sakelako telefonoentzako antenen kontra

Gero eta ugariagoak direla eta arriskutsuak ere izan daitezkeela salatu dute

Azaroaren 14an hasi ziren eta harrez gero martitzeneko manifestazioa egin dute Santutxuko auzotar batzuek etxeen gainean sakelako telefonoentzako antenak gero eta ugariagoak direla salatzen. Santutxuar horiek arduratuta daude arriskutsuak ere izan daitezkeela susmatzen dutelako.

Santutxuko herritar talde batek auzoko kaleetan kartelak ipiniaz mobilizaziorako deia zabaldu du azaroan zehar. Etxebizitza blokeen gainean telefonoentzako antena larregi daudela uste dute eta hori arriskutsua izan daitekeela pentsatzen dute. Larrituta, protestak hasi dituzte, 'Antenas no' - antenarik ez- lelopean.

Herritar horiek zabaldu dutenez, gero eta ugariagoak dira etxeetako teilatuetan paratutako antena horiek. "Telefono konpainiek sos handiak ordaintzen dizkiete komunitateei antena horiek ipintzearen truke. Baina balizko ondorioak guztiontzat dira", esan dute. Izan ere, Berdeak alderdiak salatu duenaren arabera, Santutxuko alderdi batzuetan 50 metroan bost antena topatu dituzte. "Eta hau hasiera baino ez da", abisatu dute.

Antena horiek osasunari zelako kalte eragin ahal dioten, argitu barik dago oraindik. Denetariko azterketak egin dira eta emisioak daudela konfirmatuta dagoen arren, ezin esan pertsonentzat kaltegarria ote diren. "Enpresek erakutsi beharko lukete kalterik ez dagoela, eta ez kontrakoa", esan dute auzokoek. Edozelan be, susmo txarrerako bidea ikusten dute. "Sos handiak gastatzen dituzte antenok ipintzeko. Zer edo zer-gatik izango da".

Berdeak alderdiak, bere aldetik, antena horiek etxebizitzetatik distantziara egon beharko luketela eskatzen du. Baita araudia betetzea eta konpainiak antenak kon-



partitza ere. "Herriarrak defentsa barik daude gaur egun. Eta ez da logikoa konpainia bakoitzak bere antenak paratzea. Telebistarekin gertatzen den bezala, antenak konpartitu beharko lukete", aldarrikatu dute.



MANIFESTAZIOAK
Santutxuko manifestazioak azaroaren 14an hasi ziren. Ehunka lagun Karmen plazatik abiatu zen 'Antenas no' zioen pankarta baten ostean. Auzo kaleetatik barrena ibili ziren 'Antenas no, salud sí' gisako esaldiak oihukatzen. Aurrerantze-

an, asteartero manifestazioa egiteko deialdia egin zuten, arazoa konpondu arte. Hitzordua Karmen plazan bertan ipini dute, arratsaldeko zortzi eta erdietan.

Horrelaxe egin zuten harrez gero. Hilaren 21ean ere, euria barra-barra bota zuen arren, 250 bat lagunek manifestazioa egin zuten Santutxun zehar.

BERRIKARRIAK

BERRIKARRIAK



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetat.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia:

Herria: Herrialdea:

Telefona:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN

Sinadura

SAN PEDRO/ URKABUZZAIZ (708 M.) LEZAMA (ARABA)


Bilbo-Urduña errepidetik, Amurrionora heltzean elizaren ondotik ezkerretara, Murgia-rantz doan errepidea ateratzen da. Bertatik joanez Lezama-Bergantza adierazten duen txartela ikusiko dugu bi bider (Lezama antzinako udal-lerria da, egun Amurrion sartuta). Justu azken seinalea ikusten dugunean 5 kilometro egin ditugu Amurriotik abiatu garenetik. Handik pixka bat aurrerago, gain batean eta bidegurutzean antzina baserri izandako etxe eder bat ikusiko dugu. Gaur egun oso ondo berriztatua eta jatetxe zabaldua (jatetxe horren izena 'Bideko' da).

Jatetxe honen eskuinaldetik ateratzen den bide asfaltatua hartuko dugu. Handik oso ondo ikus daiteke Txibiarte Gaina muinoko errepikagailua. Gure norabidea hau izanik zuzen jarraituko dugu errepidea, eskumarantz doazen beste bideei jaramonik egin gabe. Kilometro bi egin eta azken baserriak pasatu ondoren bide asfaltatua amaitzen den inguru honetan utzi genuen kotxea.

Orain harriz egindako pistatik joango gara laster bidebanatze batera iritsi arte. Eskuinaldetik doan pista hartu beharko dugu eta, aurrez aurre daukagun muinoa inguratuz, Txibiarte lepo ingurura helduko gara. Ezker aldean errepikagailua ikus dezakegu; muinoaren barrualdetik trenbidea doa.

Txibiarte lepoan (C) pista utzi eta eskuinaldean dagoen muino gaineretik eta hesiaren ondotik ateratzen den bidezidorra hartuko dugu. Zabalera heltzen garenean garaia dagoen muinorantz abiatuko gara. Ondoren landa zabal batzuk zeharkatu eta San Pedro/Urkabustaiz (706 m.) tontorrean egongo gara.

Txartel kutxa burdinazko irudi batean dago. Inguruan burdinazko gurutze handi bat ere bada. Guztira ordu bat. Ikusten denez erreza eta eroso da egindakoa, horregatik, ibilaldia luzatzea erabaki genuen, ondoko hau eginenez: Urduñatik Izarrarako errepidearen ondotik joan ginen baina landan zehar, barruko aldetik, burdinbidetik ibiliz, Uzkiano herrira iristeko hogei bat minututan. Bola-toki eta tren geltokiaren ondotik pasatuz Oiardo herria



lortuko dugu (ordu erdi). Lehen aipatu dugun Urduña-lzarra errepidera irtengo gara Goiuri/Gujuli herrira heltzeko. Herri hau adierazten duen seinalera heltzen garenean errepidea utzi eta errekatxorako bidea hartu, eliza ondotik pasa eta ondoren tren-bidea zeharkatu. Bertan Goiuri/Gujuli ur jauzi ederra ikusi arte. Itzulia toki berdinetik egin daiteke edo guk egin genuena: berriro trenbidea zeharkatu ondoren eskumarantz doan pista hartuko eta lehen bidebanatzean ezkerretara jo. Pista amaitzen denean landan zehar eta gailurreratik joango gara beti, berriro ere Txibiarte lepoan izan arte. Ur jauzitik honaino ordu bete.

IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE

GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

MESÓN GURETXE

Santutxuko poteo gunean

KARMELO IKASTOLAK ERAIKIN BERRIA ESKATU DU BESTE BEHIN

Larreagaburuko proiektua 'geldirik' dagoela salatu dute



Argazkiak: Iñigo Azkona

Karmelo ikastolak eraikin berriaren proiektua 'geldirik' dagoela salatzeno kalejira zaratatsua egin zuen azaroaren 24an. Denbora aurrera doa eta Larreagaburun eraiki behar duten eskola ez da inondik azaltzen. Gainera, elkarren ondoan urte bitik hamasei urte bitarteko hezkuntza zentro bi nahi dituzte, hasieran agindu zieten bezala.

Azaroaren 24ko arratsaldean Menendez y Pelayo kaleko ikastolatik abiatu ziren Karmeloko guraso, irakasle, langile eta ikasleak euren aldarrikapena egitera. Zaratatsu jardun zuten Santutxuko kaleetatik barrena euren aldarrikapena barreiatuz.

Aurretik ere antzeko mobilizazioak eginda daude ikastolakoak, azke-

nak maiatzean eta ekainean. Arrazoiak bi dira nagusiki. Jakina denez, Karmelo ikastolak urte asko egin ditu Santutxuko puntu bitan banatuta: haur hezkuntza Santa Martan eta lehen hezkuntza Menendez y Pelayo kaleko lokaletan. Bigarren hezkuntza egitera, Solokoetxe-Karmelo instituturara doaz ikasleak.

Leku bi horiek baldintza minimo-

ak bete ez eta ikastola osoa eraikin baten elkartzeko premia kontuan hartuta, ikastola berri baten eske hasi ziren. Lehenengo Hermanitas de los Pobresen ondoan eskatu zuten, baina Udalak ez zuen onartu, bertan etxeak eta parke bat egin behar dituztela argudiatuta. Azkenean, Larreagaburu (Mina del Morro) aldean ikastola berri bat eraikiko dutela



agindu zuen Eusko Jaurlaritzak. Parke baten ertzean altxatu behar zuten eta urte bitik hamasei urte arteko ikasleak hartu behar zituen bere baitan.

Berba eman bai, baina proiektuak ez du aurrera egin. Alde bateatik, parkea bera geldirik dago, finantzazio arazoak direla medio, antza. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak baztertu egin du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) Larreagaburura eramatea, garestiegia litzatekeelakoan. "Guretzat ezinbestekoa da", esan du Tere Omagoezakoak, Karmelo ikastolako zuzendariak. "Umeak haraino eraman ezkerro, hamasei urtera arteko eskaintza egin behar dugu, bestela proiektuak arazo larriak edukiko ditu", argitu du. Lehen Hezkuntza eta DBH ikastola bakarra ez badira ere, "gutxienez zentro biak elkarren ondoan egon daitezela", zehaztu du.

EZ DAGO EZER

Baina aldarrikapen hori ez da bakarra. Larreagaburuko proiektua ez ei doa aurrera. "Nahiko geldirik dago. Ez digute batzar bakar batera deitu. Eusko Jaurlaritzak esan du 2009-10 ikasturterako ikastola berria prest



egongo dela baina horrela jarraitu ezkerro ezinezkoa izango da", iragarri du Omagoezakoak. Horren adibidea da, berbarako, lur sail batzuei egin beharreko kalifikazio aldaketak oraindik egin barik daudela.

"Telefonoz berba egiten dugunean aitortzen digute haserre egoteko arrazoa daukagula, baina gero ez dugu inondik ere aurrerapausorik ikusten", laburbildu du zuzendariak.

Eta badago beste kexa iturri bat

ere. Eraikin berriarena luze joko duela ikusita, oraingo instalazioetan konponketak egin ditzatela eskatu dute Karmelo ikastolakoek. Berbarako, Menendez y Pelayoko lokaletan ez daukate gimnasia-une honetan eta konponbide gisa frontoia ezal-tzeko eskatu dute.

"Jaramonik ez badigute egiten, mobilizazioekin jarraitu beharko dugu", esan du Tere Omagoezakoak.

DURANGOKO MAHATSORRIAK

Abenduaren 6an zabalduko da euskal kulturaren plaza nagusia

Durangoko Azokak abenduaren 6an zabalduko ditu atea eta bost egunez euskal kulturaren topalekua izango da. Bertan mahatsorri asko azalduko da, hala egile nola ikusle edo erosle. Hurrengo lerroetan, gure ingurukoek Durangon zer aurkeztuko duten laburbilduko dugu.

Urtero lez, ez dira gutxi izango gure auzoetatik Durangora joan-etorria egingo dutenak. Gehien-gehienak nobedadeak ikustera, giroaz gozatzera, lagunakaz egotera eta, beharbada, zer edo zer erostera joango dira. Baina badira gutxi batzuk euren lanak erakustera joango direnak. Hona hemen eurentariek batzuk, guk jakin ahal izan ditugunak hain justu.

Miren Agur Meabe (1962, Lekeitio) idazleak liburu berri bat besapean daukala azalduko da Durangoko Azokan. "Urtebete itsasargian" nobela gazteentzako literaturaren arloan dabil, baina hizpide 1936ko gerra lazarria dakar. Hamahiru urteko mutil baten ikuspegia darabil liburuan zehar. Egileak berak kontaktu duenez, iaz 'Lauaxeta' antzezlanaren ikustean sentitu zuen zirrarak eraman zuen guda haren gainean idaztera.

Meabe Kirikiño ikastolako irakaslea izan zen eta gaur egun Giltza Edebé argitaletxeko zuzendaria da. Urte asko Santutxun egin ostean, orain Txurdinagan bizi da. Liburu berria ekartzeaz gain, Miren Agur Meabe Durangon bertan egongo da poesia errezitaldi baten. Abenduaren 9an izango da, San Agustin aretoan,



eta berarekin batera Igor Estankona, Pello Otxoteko eta Alojz Ihan eslobeniar olerkariarekin batera.



Iñaki Anasagasti (1947, Caracas) Durangoko Azokako klasikoa bilakatu da azkenaldion erdaraz idazten duten egileen artean. Aurreko edizioetan hamaika liburu sinatu zuen hala 'Agur, Aznar' nola 'Dos familias vascas: Areilza-Aznar' -azken hori

Josu Erkorekarekin batera idatzitakoen tituluekin. Campo Volantineko idazleak aurten ere nobedadea dakar: 'Llámame Telesforo', Telesforo Monzon EAJko diputatua izan zeneko garaia kontatuz. Liburuko edukiaren iturri nagusia 1973an Anasagastik Bergarako politikariari egin zion elkarrizketan dago. Gerra zibila baino lehenagoko urteetan Madrileko Kongresuko giroa eta eztabaida politikoak azaltzen ditu.

Zabalbideko Emaisia elkarrekin ere bere aletxoan eramango du Durangora. Aurtengo euren jardunaren emaitzak "Ipuinak ez sexistak izateko gida praktikoa" esku liburuan batu dituzte. Ipuinak neska-mutilen heziketan garrantzitsuak izan badirela aitortuta, balio ez sexistaz hornitu nahi izan dituzte. "Horretarako, -esan du Emasiako Bea Medranok- gaurko eta betiko



ipuin batzuk aztertuz ikerketa bat burutu dugu, eta emaitza hainbat liburu irakurketa ez sexista egiteko irizpideak eskaintzea izan da. Liburuak bi zati ditu, alde batetik teorikoa eta bestetik praktikoa, non umeentzako hainbat ipuin lantzen diren".

MUSIKA

Musika arloan ere mahatsorriek badaukate zer erakutsia Durangon. Egia esanda, disko baten topatu ditugu eurentariek batzuk. '18/98 auzolanean' euskal bertsolari eta musikari asko elkartu dira 'Euskal

Miren Agur Meabe Durangon bertan egongo da poesia errezitaldi baten. Abenduaren 9an izango da

Herriari epaiketariek ez' lelopean. Bertan, Benito Lertxundi, Berri Txa-

rrak, Mikel Urdangarín edo Andoni Egañarekin batera, gure auzoetako jendea ere aurkitu dugu. Alde batetik, Doctor Deseo taldeak abesti bat grabatu du, 'Silencio en la sala'. Joxi Jimenez eta Francis Diez mahatsorrien taldeak Unai Iturriaga bertsolariaren berbak musikatu ditu. Gainera, Francis Diezek egin zuen bozeramalearena diskoaren aurkezpen publikoan. Zea Mays taldeak be parte hartu du. Aiora Renteria santutxuarraren ahotsa 'Astero oster

lanera' kantuan entzungo da, Maialen Lujanbioren hitzak abesten.

Urtean zehar kaleratutako lanak ere Durangon izango dira, Doctor Deseoren azkena, barbarako, edo Matikoko Javi Cilleroren 'Ero hiria' narrazio bilduma.

Eta, jakina, urtero lez, BERTON aldizkaria ere Durangoko Azokan egongo da, azken zenbaki hau erakusten. Topagunearen saltokian aurkituko duzue Begoñako errepublika zaharreko aldizkaria, Hego Euskal Herriko beste hamaika herri aldizkariarekin batera.

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

GOIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Zu, superguai hori! Weekenda goizean yachtetan eta arratsean golf-klubean pasa behar dozu? Zuretzako kalte!

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Olentzerok txistu barria ekarriko dotsu, bai, baina bakar-bakarrik play-backen joko dozula berba emoten badozu...

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Negar anpuluak zeure masailetan behera isurtzen ikusi doguz. Txisteeek grazia larregi egiten deutesue...

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Hemen katuen laguna. Afrikan gameluena. Zagozen lekuan zagozela beti animaliren bat alboan ala?

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Oi,oi, oi... Foru Ogasunean zeure ganean egin dabe berba...

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Ez da izango!! Berbalagunaren hileko galderak sudokuak baino gatzagoak direla? Ederra egin dogu!

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Edurra gura dozu eta eukiko dozu. Nahi beste. Gero ez etorri kexetan gero!

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Surf egiten hasiko zara, bai, amestu zenduen bezela. Baina uger egiten ondo ikasita joan!

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Iruñeko txorizoa, Extremadurako pernila, Zamorako lukainak, Huelvako solomoa, Zamudioko buskaintzak, Zaldibiako mondejuak,... halako txarria!

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Durangoko azokan ligau be egiten dala? Banengoen ni ba, jentea uriolaka Durangora zeozegaitik izango zala...

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Gaupasa gau batekoari esaten jako. Baina gaupasa, egun-pasa eta bigarren gaupasa egiteari beste izen bat emon behar jako, gaupasaitor...

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Zu zara nagusia barik, zu zara exkluyente eta xenofoboa. Horixe esan dau tentel batek. Datorren urtean bigarren mailan egongo dan tentel batek, zehatzago esanda.

ABENDUAK 6-10
PONT D'ESPAGNE
(CAUTERETS)ERA TXANGOAK.
LIZARDI MINTZA TALDEAK.
PREZIOA: 130 EURO (AUTOBUSA,
ATERPEA, AFARIAK ETA
GOSARIAK BARNE).

ABENDUAK 6-10
DURANGOKO AZOKA.

ABENDUAK 8
EXODUS ETA BIOMECHANICAL.
KONTZERTUA. SANTANA 27
ARETOA. 21:30EAN.

ABENDUAK 11
BELEN ERAKUSKETA. JUSTO
ETA PASTOR DEUNAK JAIOTZEN
ELKARTEAK EGINDA.
OTXARKOAGAKO AUZO ETXEA.
GOIZEZ 10ETATIK 13ETARA.
ARRATSALDEZ 17ETATIK
21ETARA. URTARRILAREN 7RA
ARTE ZABALIK EGONGÓ DA.

ABENDUAK 12
OPETH. KONTZERTUA.
SANTANA 27 ARETOA.

ABENDUAK 17
IRUÑA-VELEIARA BISITA.
GETXO, DEUSTU ETA
MAHATSERRIKO
BERBALAGUNAK.

ABENDUAK 17
URKIETA (854 M)
MENDIRA IRTEERA.
ARESOTIK IGOKO DIRA
(NAFARROA). SANTUTXUKO
MENDIZALE TALDEA.

ABENDUAK 25
HERRIRA PLATAFORMA
MANIFESTAZIOA.
20:00ETAN. RITXI PLAZAN.

